

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. ESTATU ESPAINIARRAREN DEFIZIT PUBLIKO HANDIAGOA DIRU-SARRERA TXIKIAGOAK DITUELAKO SORTZEN DA
2. NDFK GEHIAGO NAHI DU
3. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAREN ETENGABEKO IGOERA
4. 2. NAFARROAN LAGUNTZA SOZIALAK JASOTZEN DITUZTEN FAMILIAK 2012AN BAINO %22 GEHIAGO DIRA
5. NAFARROAKO GOBERNUAK EUSKARA ITO NAHIAN JARRAITZEN DU
6. EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA ONARTU DA
7. PROPOSAMENA: GURE ESKU DAGO, HASIERA BAINO EZ

**1. ESTATU ESPAINIARRAREN DEFIZIT PUBLIKO HANDIAGOA DIRU-SARRERA TXIKIAGOAK DITUELAKO SORTZEN DA**

Azken urteetan aplikatzen ari diren aurrekontuen doikuntza politikak guztien gaintik bide bati jarraitzen diote, gastu publikoaren eta, batik bat, gastu sozialaren murrizpena. Politika hau Europar Batasun guztian ari dira ezartzen.

Eurostat Estatistikako Europar Erakundeak EBko estatuen Gastu publikoari eta Diru-sarrerei buruzko datuak eman ditu (2010-2013 epealdiari buruzkoak). Datu hauetatik ondorio interesgarriak atera daitezke, gastu publikoa murrizteko politikak zalantzan jartzeko aukera ematen baitute:

- Europar Batasunean gastu publikoa BPGdaren %49,1 zen, hots, 2010eko %50,6arekiko 1,5 puntu beherago.
- EBko diru-sarrera publikoak 2013an BPGdaren %45,7 izan ziren, 2010ean baino 1,6 puntu gehiago. Horrenbestez, EBko defizit publiko maila BPGdaren %3,3koa izan zen.
- Espainiar estatuan gastu publikoa europar batez bestekoa baino askoz apalagoa da. 2013an BPGdaren %44,8an zegoen, europar maila baino 5,3 puntu beherago. Batezbesteko europarrera iristekotan, gastu publikoak espainiar estatuan izan zena baino 54.218 milioi euro handiagoa izan beharko zukeen. Gastu publikoa Espainian gainbehera doa, 2013an 1,5 puntu murriztu baitzen 2010 urtearekiko (EBn jaitziera bera gertatu

zen).

- Espainiar estatuan diru-sarrera publikoen maila 2013an BPGdaren %37,8koa izan zen, EBko batez besteko mailatik 7,9 puntu edo 80.816 milioi euro beherago. Diru-sarrera hauek BPGdaren 1,1 puntu besterik ez dira hobetu 2010 urtearekiko, hots, batezbesteko europarra baino gutxiago.
- Espainiako defizit publikoa 2013an BPGdaren %7,1 izan zen, maila europarra baino askoz handiagoa; arrazoiak, ordea, da diru-sarrera askoz txikiagoak direla, ez gastu publikoa handiagoa izatea.

ESPAINIAR ESTATUAK EUROPAR  
BATASUNAREKIKO DUEN DIFERENTZIALA.  
2010-2013.

	2010	2013
GASTU PUBLIKOA	-44.962 milioi	-54.218 milioi
DIRU-SARRERA PUBLIKOAK	-77.376 milioi	-80.816 milioi
DEFIZIT PUBLIKOA	+32.414 milioi	+36.598 milioi

*Iturria: Eurostaten datuekin Azterketa Bulegoak egina.*

Ezinbestekoa litzateke datuok Hego Euskal Herrikoekin alderatzea, baina hau ez da posible. Batetik, Nafarroan ez dago horri buruzko informazio ofizialik. Bestetik, EAeri buruzkoa, Eustaten datuak, 2011raino besterik ez dira iristen. Halere, ondorio interesgarriak atera daitezke.

EAEko gastu publikoaren maila (hots,

administrazio guztiena, estatua eta Gizarte-Segurantza barne) 2011an %39,9an zegoen, espainiar estatukoa baino askoz beherago (2011n BPGdaren %45,7ra iritsi zen). Beraz, esan daiteke gastu publikoaren diferentziala europar batez bestekoarekiko EAEn askoz handiagoa dela Espainian baino.

## 2.- NDFK GEHIAGO NAHI DU

Orain arte, Nazioarteko Diru Funtsak gastua murriztea zuen helburu; orain, berriz, bere errezeta magikoekin administrazioek biltzen duten dirua ere gehitzea nahi du. Zergatik? Herrialde baten kontuak diru-sarreraren eta gastuen arabera izanik, datuek berretsi dutelako espainiar estatuko presio fiskala batez besteko maila europarra baino zortzi puntu apalagoa dela (BPGdaren %32, %40 europarraren aldean), eta ELGEko maila baino bi puntu txikiagoa. Gainera, 2014 eta 2016 bitartean gastu publikoa 38.000 milioi euro inguru murriztuko da defizit publikoa BPGdaren %2,8raino jaisteko.

NDFk esan du honako neurriak hartu beharrekoak direla:

- Zerga bereziak eta ingurumenekoak gehitu eta BEZe an dagoen lehentasunezko tratua mailaka murriztea (tasa murriztu edo supermurriztua, hots, %10eko tasa murriztua duten produktuei %21eko tasa orokorra ezartzea).
- Kotizazioak jaistea, langile ez gaituen kontratazioa sustatzeko.
- PFEZeko salbuespen eta erregimen bereziak

gutxitzea eta sozietateen zerga mailaka murriztea.

- Ogasunak eta Gizarte-Segurantzak zorrak barkatzea lan egiteko moduan dauden enpresei.
- Bankuek kaudimenik gabeko pertsonentzako marko bat sortu beharko lukete enpresario txikiei berriro hutsetik hasteko aukera erraztearren.
- Kontratu mugagabeek eta aldi baterako kontratuek duten babes maila areago orekatzea.
- Zailtasunak dituzten enpresa estataleki erraztasun gehiago ematea langileen soldatak jaisteko aukera izan dezaten.

Hots, enpresei hazteko, kontratatzeke eta inbertitzeko modua ematearren, herritarrak eta langileak are gehiago zigortu nahi dituzte, betikoen mesedetan. Hala aitortu dute NDFko ordezkariak: *“herritarrek egungo zerbitzu publiko mailari eutsi nahi badiote, ordaindu egin behar dute”*.

Espainiar Gobernuak dio ez daukala, oraingoz, NDFk emandako gomendioak betetzeko asmorik; bere bide-orria baduela (Bruselara igorri duen Erreformen Plan Nazionala). Haatik, finantza-erakundearekin bat dator arazoak dituzten enpresei zorra berregituratzeko aukera erraztu beharra dagoela esatean...

Halere, Bruselari espainiar gobernuaren asmoa ez zaio aski azkarra eta nahikoa iruditzen (Europar Batzordeak gomendatu duenetik asko dago gauzatzeko), eta presa hartzeko eskatzen

dio, baita beste neurri batzuk ere, esaterako enegarren erreforma laborala edota langabezia-prestazioak jasotzeko aukera eragozte.

### Betiko menua osatzeko errezeta berriak?

### 3.- IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAREN ETENGABEKO IGOERA


Iraupen luzeko langabezia etengabe ari da hazten. Aurtengo lehen hiruhilekoan EAEko hamar langabeetatik ia lauk (%39,1) bi urtetik gora zeraman egoera honetan. Azken Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, guztira 70.000 lagun dago, gutxienez duela bi urtetik hona, lanik gabe. 2008ko lehen hiruhilekoan 13.000 pertsona zeuden EAEn egoera horretan (bilatu arren). Orduan langabezia tasa %5,8ekoa zen. Aldiz, 2013 amaieran kopuru hori 62.900raino biderkatu zen; 2014ko lehen hiruhilekoan egindako BAIaren arabera, 70.000 ziren (%11 gehiago hiru hiletan). Horrela EAEko maila espainiar estatukoaren parera iritsi da, non iraupen luzeko langabeak 2,4 milioi diren (guztirako kopuruaren %40,7).

Halaber, inkestak berresten du prestakuntza maila enplegua aurkitzeko aukerekin lotuta dagoela: Matematika eta estatistikaren esparruan langabezia tasa %6,81ekoa besterik ez da; ondoren bizitzaren zientziak daude (%12,4), Zuzenbidea (%12,5) eta segurtasun zerbitzuak (%13,9). Beste muturrean, berriz, %26ko tasatik gora arkitektura eta eraikuntza

daude (%29,9); garapen pertsonala (%31,6) eta ingurumenaren babesa (%32). Oinarrizko prestakuntza baino ez dutenen langabezia tasa %32,5ekoa da.

Ondorioa argia da: langabezian zenbat eta denbora luzeagoa egon, are zailagoa izango da berriro laneratzeko aukera; fenomeno honi histeresia deitzen zaio. Horri gogorik eza gehituz gero, egoera bere hortan gaiztotzen da, eta irtenbidea gero eta zailagoa gertatzen da. Ia kasu guztietan langabeek prestazioa jasotzeko eskubidea galdu dute, eta gehienez, baita horrekin lotutako laguntzak ere; azkenean inolako prestaziorik jasotzen ez duten familien kopuruan sartzen dira.

### 2 URTEZ LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK



Datuek hau berresten dute: 2007an EAEn 96.157 langabeetatik 58.810ek prestazioren bat jasotzen zuten, eta gainerako %38,83ak bat ere ez; 2014an, aldiz, 228.818 langabeetako 112.212k jasotzen dute prestazioren bat, eta %50,96ak ez dauka bat ere. Batez besteko kopurua ere murriztu egin da, 1.141,85 eurotik 917,12 euroraino. Euskal gizartean beharra gero

eta handiagoa izanagatik ere, prestazioak izateko eskubidea mugatu eta jasotzeko epealdia murriztu duten erreformek, aurrekontu urriagoekin batera, ongizate estatuari beste zartada gogor bat eman diote.

#### **4.- NAFARROAN LAGUNTZA SOZIALAK JASOTZEN DITUZTEN FAMILIAK 2012AN BAINO %22 GEHIAGO DIRA**

Bada denbora agintean dauden politikariak ekonomiaren susperraldiaz hitz egiten entzuten ditugula.

Beraien esanetan, krisia gainditzear dago, eta horrela erakusten dute adierazle guztiek.

Zentzu honetan ere mintzatu zen duela egun batzuk Nafarroako Gobernuaren buru den Yolana Barcina. Haren esanetan susperraldi ekonomikoa “ez da egia teknikoa soilik”, “ongi oinarritutako prozesua” da. Bere ustez “datuek luzea eta mingarria izan den krisia gainditzeko konfiantza mezua bidaltzera gonbidatzen dute”.

Propaganda mezuek ez dute sekula konfiantzarik ematen, ez behintzat krisiaren alde bortitzena jasaten dutenei.

Eta propaganda mezua izan zen baita Iñigo Alli Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Kontseilariak laguntza sozialen inguruan emandakoa.

Kontseilari honek 2013an laguntza sozialak jaso zituzten familia kopuruen datuak eman zituen,

Gizarteratze Errentaren onuradunak eta etxebizitzetako alokairua ordaintzeko laguntzen onuradunak.

Hain zuzen, 2013an 9.472 familiek jaso zuten Gizarteratze Errenta, eta 1.661 familiek alokairua ordaintzeko edo beharrezkoak diren etxetresna elektrikoak erosteko laguntzak. Kopuru honek suposatzen du laguntza sozial hauek jasotzen dituzten familiak 2012an baino %22 gehiago direla.

Pobreziaren hazkundera izugarria izaten ari da Nafarroan.

Gainera gogoratu beharrekoa da Gizarteratze Errenta arautzen duen legea 2012an aldatu zela, eta aurretik zegoen Oinarrizko Errenta jasotzeko bete beharrak gogortu zituela, diru kopurua gutxituz, eskuratzeko baldintzak gogortuz, onuradunak gutxituz, eta abar.

Argi dago boterean daudenen krisia ez dela herritar gehienok sufritzen dugun krisi berdina; eta pobrezia gero eta handiagoa den bitartean, langabezia maila horren altua denean eta zerbitzu publikoak gero eta kalitate txarragoak direnean, ezinezkoa da krisia gaintzen ari dela pentsatu ere egitea.

#### **5.- NAFARROAKO GOBERNUAK EUSKARA ITO NAHIAN JARRAITZEN DU**

Euskarabidea Nafarroako Gobernuak euskara gaietarako duen Institutoa da.

Erakunde honen bitartez kudeatzen dira, besteak beste euskara sustatzeko kanpainak,

euskarazko komunikabideei diru-laguntzak, euskaltegiei diru-laguntzak, euskararen inguruko ikerketak, eta abar. Hau da, erakunde honetan biltzen da euskararen inguruan Nafarroako Gobernuak egiten duen ekimenaren zati garrantzitsu bat.

Horretaz baliatzen da ere Barcinaren Gobernu murrizketak egiteko. Izan ere, Euskarabidea izugarriko murrizketak egiten ari da arlo ezberdinetan: AEKren eta IKAREN euskaltegiei ez diete 2013an aurreikusitako 245.000 eurotako diru-laguntza eman, eta 2014koa ere zalantzan dago. Euskarazko komunikabideei ere diru iturria moztua diete, 2009an aurreikusitako 310.000 euro eman beherean, 9.000 euro pasa eman zizkieten, eta 2012tik aurrera bat ere ez. Honek komunikabide bat baino gehiago ixtera eraman du.

Euskarabideako Zuzendariak esan berri du egoera ekonomikoa oso zaila dela, eta beraz lehentasun kontua dela.

Hori argi daukagu, Nafarroako Gobernuaren lehentasuna euskara itotzea dela.

## **6.- EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA ONARTU DA**

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta joan den maiatzaren 31n Bilbon izan zen Batzarrean onartu zen. Duela urtebete, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorra izan zenean, bera deitu genuen sindikatu eta gizarte-erakundeok erabaki genuen Eskubide Sozialen Karta egiteko prozesuari ekitea. Helburua: egungo sistema

kapitalistan nagusi diren politika ekonomiko eta sozialetan, produkzio, banaketa eta kontsumo moduetan goitik beherako aldaketa beharrezkoa dela uste dugunon erreibindikazio eta eskariak adieraztea.

Urtebete honetan prozesuan 1.200dik gora lagunek hartu dute parte, 130 herri, eskualde edo esparru sektorialetan egindako eztabaidetan. Idatzi den kartan laburbildu dira bileretan egindako 150 fitxetan jasotako milaka ekarpenak.

Kartaren oinarriak honakoak dira:

- Jarduera ekonomiko, sozial eta politikoaren ardatz nagusi gisa lehentasuna pertsonak, bizia mantentzea eta planeta errespetatzea izango dira.
- Gizartearen antolakuntza parametro horien arabera antolatzea ezin da atzeratu.
- Lana, enplegua eta aberastasuna benetan banatu beharra dago, eta urgentziaz.
- Enplegu duina izateko eskubide unibertuala.
- Bizimodu duina ahalbidetzeko besteko prestazio sozialak.
- Beharizan desberdinetara egokitutako etxebizitza izateko eskubidea.
- Komuna denaren eta bestelako zerbitzu publiko batzuren defentsa (eskubide gehiago eta eragingarriagoak barne).
- Gizon-emakumeen aniztasun desberdin eta ugarien ikuspuntu inklusiboa.

- Administrazioak aldatu beharra; helburua parte hartzezko jarduera eredu da.

Kartaren edukia honako loturan ikus daiteke:  
<http://www.ela-sindikatu.org/eu/aktualitatea/albisteak/euskal-herriko-eskubide-sozialen-karta-aurkeztuta-1>

Azkenik, aipatu beharra dago uda ostean erabakiko dela Kartaren alde datozen hiletan izango den mobilizazio eta ekintza agenda.

### **7.- PROPOSAMENA: GURE ESKU DAGO! HASIERA BAINO EZ**

Hilabeteetan zehar egindako lanak emaitzarik onena izan zuen pasadan ekainaren 8an. Euskal gizartea eredu izan zen, sensibilitate ezberdinak eskubide berdinen baten alde egon eta erabakitze eskubidearen defentzan agertu ziren, gizartea kapaza delakoaren adierazgarri. Datu ofizialen arabera, azkenik 150.000 pertsonak osatu zuten Durango eta Iruñea bitarteko giza katea, gizonezkoak, emakumeak, umeak, egun historiko baten lekuko ezin hobeak. Hasiera baino ez suposatu duen egun garrantzitsua, izango denaren hazia.

Emaitzak antolakuntza berari ere harritu dio, egun berean eta pasadan astean zehar parte-hartzaileei zorionak luzatu dizkiolarik.

Milaka izan dira auzoz auzo eta herriz herriz antolatu eta elkarrekin lan egin duten

pertsonak 123 kilometro baino gehiago suposatu duen ibilbide bat osatzeko. Zorionak euskal gizarteari luzatu behar zaio, parte hartu zutenei eta ez zutenei ere, erabakitze eskubidea zabal daitekeen eskubidea delako.

Ikuspuntu politikoetatik haratago, euskal gizarteak momentua aprobetxatu beharra dagoela argi utzi zuen, orain da aurreiritziak baztertu eta indarrak batzeko garaia, oso hedatua dagoen sentimendua adierazi zen, euskaldunek erabaki nahi dutenarena.

Etorkizuna, elkarrekin eta erabakitze eskubidea, jarri dezagun hasitako bidea!